

ULERMENA

Juneri printzeen ipuinak irakurtzea gustatzen zitzaion. Egun batean, aita eta amarekin txango bat egitera joan zen lakura.

Junek igel bat ikusi zuen eta harrapatzen saiatu zen. Bere ipuin gogokoenean bezala, musu eman nahi zion, printze bihurtzeko. Baina, harrapatu zuenean eta musu ematera joan zenean... Buuuuuaaaagggg!!!



Ordutik aurrera superheroien ipuinak irakurtzen hasi zen.

1. Zer gustatzen zitzaion irakurtzea?

☐ Animalien ipuinak. ☐ Printzeen ipuinak. ☐ Lapurren ipuinak.

2. Nora joan ziren txango bat egitera?

☐ Mendira. ☐ Hondartzara. ☐ Lakura.

3. Zer ikusi zuen?

☐ Igela. ☐ Zaldia. ☐ Arraina.

4. Zer eman nahi zion igelari?

☐ Opari bat. ☐ Gozoki bat. ☐ Musu bat.

5. Musu eman zion?

☐ Bai. ☐ Ez.

6. Zeintzu ipuin irakurtzen ditu orain?

☐ Detektibeen ipuinak. ☐ Astronauten ipuinak.

☐ Superheroien ipuinak.